Orientazio-ekintzak aurrez aurrekoak izango dira, eta banaka zein taldetan egin ahal izango dira. Gutxienez ere elkarrizketa pertsonal bat egongo da, interesdunak jarraitu behar duen lan-ibilbidea diseinatzeko izango dena, baita ere prestakuntza-eskaintzari buruzko, lan-arautegiari buruzko (lan-kontratuak, eskubideak eta betebeharrak, lan-hitzarmena) eta lan-merkatuari buruzko informazio-saioak ere.

Las acciones de orientación a desarrollar serán presenciales y de carácter individual, o grupal. Incluirán, al menos, una entrevista personal, enfocada a la búsqueda de empleo, así como sesiones de información sobre oferta formativa, sobre normativa laboral (contratos de trabajo, derechos y obligaciones, convenio colectivo) y sobre el mercado laboral.

7. Lan-bitartekaritza: Enplegu eta prestakuntza programa mistoko parte-hartzaileei lagunduko zaie lan-merkatuan sartzeko prestakuntzan, enpresekin topaketak eginez eta eskaintzak aurkitzeko planak garatuz. Lehen aukeraketa bat egingo da, lan-eskaintzei ondoen egokitzen zaizkien profilak identifikatzeko.

7. Intermediación laboral: Consistirá en el apoyo a las personas participantes, según los casos, para su incorporación al mercado laboral, mediante encuentros con empresas y desarrollo de planes de captación de ofertas. Incluirá una preselección para identificar los perfiles que más se ajustan a las ofertas de empleo.

Lan-eskaintza potentzialen eta enpresek duten langile-beharrizanen prospekzioa eta identifikazioa hartuko ditu. Horretarako, enpresa batzuk bisitatuko dira eta harremanetan jarriko da enpresa-erakunde

Comprenderá la prospección e identificación de ofertas de empleo potenciales y de necesidades de personal por parte de las empresas. A tal fin se realizarán visitas a empresas, y se realizará la interlocución con organizaciones empresariales.



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

batzuekin. Lanpostuak eskuragarri dituzten sektore ekonomikoak identifikatuko dira, eta lanpostu horien lanbide-profilak aztertuko dira.

Horren emaitza gisa, enplegu eta prestakuntza programak osatuko dituzten prestakuntzak proposatuko dira.

8. Edizioen kopurua: modulu edo konpetentzia-unitate bat zenbat aldiz egiten den.

9. Lanbide-esperientzia: prestakuntza-ibilbide pertsonalizatua amaitzen duten gazteen % 100entzat prestakuntza praktikoa emango da lantokietan eta prestakuntza teknikoarekin lotutako lanbideetan.

Lanekoak ez diren praktiketan parte hartzen duten gazteei errege-dekretu hauetan ezarritako inklusio-mekanismoak aplikatuko zaizkie: urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretua, prestakuntza-programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzeko erak eta baldintzak arautzen dituena, edo urriaren 31ko 1543/2011 Errege Dekretua, enpresetan egiten diren eta lan-arlokoak ez diren praktikak arautzen dituena edo, hala badagokio, martxoaren 15eko 189/2013 Errege Dekretua, profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretua aldatzen duena, eta aplikatzean emandako profesionaltasun-ziurtagiriak ezartzen dituzten errege-dekretuak.

Lanekoak ez diren praktikak enpresen eta prestakuntza-erakundearen arteko hitzarmen edo akordioen bidez egingo dira. Praktikak hasi aurretik, akordio horren berri emango zaie enpresako langileen legezko ordezkariei. Baldintza hori egiaztatzeko,

Se identificarán los sectores de actividad económica que dispongan de puestos de trabajo y se estudiarán los perfiles profesionales de dichos puestos.

Como resultado se propondrán las formaciones que integren la formación técnica.

8. Número de ediciones: el número de veces que se realiza un módulo o una unidad competencial.

9. Experiencia profesional: consistirá en la formación práctica en centros de trabajo y en ocupaciones relacionadas con la formación técnica recibida para el 100% de las personas jóvenes participantes que finalicen su itinerario formativo personalizado.

A las personas jóvenes participantes en las prácticas no laborales les serán de aplicación los mecanismos de inclusión en la Seguridad Social contemplados en el Real Decreto 1493/2011, de 24 de octubre, por el que se regulan los términos y las condiciones de inclusión en el Régimen General de la Seguridad Social de las personas que participen en programas de formación, o el Real Decreto 1543/2011, de 31 de octubre, por el que se regulan las prácticas no laborales en empresas, o, en su caso, el Real Decreto 189/2013, de 15 de marzo, por el que se modifica el Real Decreto 34/2008, de 18 de enero, por el que se regulan los certificados de profesionalidad y los reales decretos por los que se establecen certificados de profesionalidad dictados en su aplicación.

La realización de las prácticas no laborales se articulará a través de convenios o acuerdos entre las empresas y la entidad de formación. Antes del comienzo de las prácticas, se pondrá en conocimiento de la representación legal de las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YWWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

langileen legezko ordezkariek sinatu beharreko hitzarmenari buruzko informazioa jaso dutela egiaztatzen duen dokumentu bat erantsi beharko zaio hitzarmenari. Gainera, horietan parte hartzen duten ikasleen zerrenda erantsi beharko da.

personas trabajadoras en la empresa el citado acuerdo. Para comprobar esta condición, habrá de adjuntarse al convenio un documento que acredite que los y las representantes legales de las personas trabajadoras han recibido la información del convenio a suscribir. Además, habrá de adjuntarse una relación del alumnado que participa en las mismas.

10. Laneratzea (foru dekretu honen ondorioetarako): lanaldi osoko edo lanaldi partzialeko lan-kontratu bat egitea, baldin eta ezarritako ohiko lanaldiaren % 50 gutxienez egiten bada, indarrean dagoen araudiaren araberako edozein kontratu-modalitateren arabera. Laneratzetzat hartuko da, halaber, Gizarte Segurantzan langile autonomo gisa alta ematea, Jarduera Ekonomikoaren altarekin batera.

10. Inserción laboral (a los efectos de este Decreto foral): la realización de una contratación laboral a jornada completa o a jornada parcial, siempre que ésta represente un mínimo del 50% de la jornada habitual establecida, bajo cualquier modalidad de contrato conforme la normativa vigente. También se considerará inserción, el alta como persona trabajadora autónoma en la Seguridad Social, junto con el alta de Actividad Económica.

Laneratzeko enpresa batean egin ahal izango da laneratzea, eta, kasu horretan, betebeharrekoa izango da Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan ezarritakoa (laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duena, horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituena); edo enplegurako zentro berezietan, desgaitasuna duten pertsonen kasuan.

Dicha inserción podrá realizarse en empresas de inserción, debiéndose cumplir en todo caso lo establecido en el Decreto 182/2008, de 11 de noviembre, del Gobierno Vasco, por el que se regula la calificación de empresas de inserción, se establece el procedimiento de acceso a las mismas y su registro, o en centros especiales de empleo si se trata de colectivos de personas con discapacidad.

11. Programara joatea: Prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten pertsonek, baldin eta programatutako orduen % 75era gutxienez joan badira eta probetxu egokia atera badute egindako ezagutza-probaren bidez. Horretarako, beren gaitasuna egiaztatzen duen agiri bat jaso beharko dute. Agiri horretan, emandako ikasgaien edukiak eta lortutako kalifikazioa barneratu diren adieraziko da. Ezagutza-proba gainditzen ez badute, prestakuntzara bertaratu izanaren ziurtagiri bat baino ez dute jasoko. Ziurtagiri horretan, ezarritako proba gainditu ez dutela adieraziko da.

11. Asistencia al programa: Las personas participantes en las acciones formativas que hayan asistido a un mínimo de un 75 % de las horas programadas demostrando un aprovechamiento adecuado mediante prueba de conocimiento realizada, deberán recibir un documento acreditativo de su aptitud, en el que se indicará si se han asimilado los contenidos de las materias impartidas, así como la calificación obtenida. En el caso de no superar la prueba de conocimiento únicamente recibirán un certificado de asistencia a la formación, donde se indicará que no han superado la prueba establecida.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Desgaitasun intelektuala edo gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, gutxieneko bertaratzea programako orduen % 50 izango da.

En el caso de personas con discapacidad intelectual o enfermedad mental, la asistencia mínima será del 50 % de las horas programadas.

Aurreko kasu bietan, egiaztagirietan, gutxienez, egite-datak, aurrez aurreko orduak eta prestakuntzarako gai-zerrenda adieraziko dira.

En los dos casos anteriores, en los documentos acreditativos se indicará al menos las fechas de realización, duración en horas presenciales y temario de la formación.

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen gertaera..*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

Diruz laguntzeko moduko egitatetzat hartuko da enplegagarritasun-ibilbide pertsonalizatua egitea, parte-hartzaile bakoitzak aldez aurretik egindako diagnostiko batetik abiatuta.

Tendrá la consideración de hecho subvencionable la realización de un itinerario personalizado de empleabilidad partiendo de un diagnóstico previo de cada persona participante.

Ibilbide horretan, nolanahi ere, laguntza integrala, orientazio integrala eta berdintasunari buruzko prestakuntza jaso behar dira. Lan-bitartekaritzarekin, prestakuntzarekin, lanbide-esperientziarekin eta laneratzearekin osa daiteke.

Dicho itinerario ha de contener en todo caso el acompañamiento, orientación integral, y la formación en igualdad. Pudiendo complementarse con intermediación laboral, formación, experiencia profesional e inserción laboral.

1. Orientazio integralak gutxienez 10 orduko iraupena izan behar du pertsona bakoitzeko, eta gehienez 25 ordukoa. Pertsona bakoitzak 120 ordu emango ditu gehienez laguntza integralean, n-orientabidean eta lan-bitartekaritzan.

1. La orientación integral ha de tener una duración mínima de 10 horas por persona y un máximo de 25 horas. El número máximo de horas dedicada a acompañamiento, orientación integral e intermediación laboral es de 120 horas por persona.

2. Prestakuntzari dagokionez, taldekakoa izan behar du, gutxienez 8 eta gehienez 20 pertsonakoa, eta honako hauek izan ditzake:

2. Respecto a la formación, ha de ser de carácter grupal, con un mínimo de 8 y un máximo de 20 personas, y puede contener:

a) Funtsezko gaitasunen prestakuntza:

- hizkuntza, gaztelania edo euskara gaitasuna
- matematikarako gaitasuna

a) Formación competencias clave:

- competencia en idioma, lengua castellana o euskera
- competencia matemática

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Konpetentzia giltzarriei buruzko prestakuntza-orduak 230 ikasle izango dira gehienez.

Las horas de formación en competencias clave será máximo 230 horas alumno.

b) Oinarrizko gaitasun digitalei buruzko prestakuntza, gehienez ere 60 ordukoa.
Prestakuntza 10 orduko moduluetan zehaztuko da.

b) Formación en competencias digitales básicas, con un máximo de 60 horas.
La formación se detallará en módulos de 10 horas.

c) Prestakuntza enplegagarritasunari lotutako gaitasun eta trebetasunetan.

c) Formación en competencias y aptitudes vinculadas a la empleabilidad.

Arlo hauetako prestakuntza-ekintza hauek jaso dezakete dirulaguntza:

Serán subvencionables las acciones formativas en las siguientes materias:

1.- Trebetasun pertsonalak: motibazioa, izaera ekintzailea, ahalegina, konpromisoa, hausnarketa kritikoa…
2.- Harremanetarako trebetasunak. Lan taldea, enpatia, negoziazioa eta komunikazioa, kulturen arteko trebetasunak…
3.- Antolaketarako trebetasunak: berrikuntza, sormena, malgutasuna, moldatzeko gaitasuna, lidergoa, denboraren kudeaketa…

1º.-Habilidades personales: motivación, espíritu emprendedor, esfuerzo, compromiso, reflexión crítica…
2º.-Habilidades relacionales: trabajo en equipo, empatía, negociación y comunicación, habilidades interculturales…
3º.-Habilidades organizativas: innovación, creatividad, flexibilidad, adaptación, liderazgo, gestión del tiempo…

Aipatutako prestakuntza-ekintzek gehienez 20 orduko iraupena izango dute aurreko atal bakoitzeko (1, 2 eta 3) eta pertsona bakoitzeko.

Las acciones formativas citadas tendrán una duración de máximo 20 horas por cada apartado anterior (1, 2 y 3) y persona.

d) Prestakuntza teknikoa izan daiteke:

d) Formación técnica podrá ser:

1.- Profesionaltasun-ziurtagiria egiaztatzeko prestakuntza, gehienez 800 ordukoa.

1º.- Formación para la acreditación de certificado de profesionalidad con un máximo de 800 horas.

2.- Prestakuntza-espezialitate baten prestakuntza, profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera edo ez lortzera zuzendua (TMS/283/2019 Agindua, martxoaren 12koa, lan-arloko enplegurako lanbide-heziketaren sistemaren esparruan

2º.- Formación de una especialidad formativa dirigida o no a la obtención de certificados de profesionalidad (Orden TMS/283/2019, de 12 de marzo, por la que se regula el Catálogo de Especialidades Formativas en el marco del sistema de formación profesional para el empleo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Prestakuntza Espezialitateen Katalogoa arautzen duena, gehienez 400 orduz.

en el ámbito laboral, con un máximo de 400 horas.

3.- Profesionaltasun-ziurtagiri batetik independenteak diren konpetentzia-unitateetako prestakuntza. Profesionaltasun-ziurtagiri bat osatu eta egiaztatu ahal izango da, gehienez 600 ordukoa.

3º.- Formación en unidades competenciales independientes de un certificado de profesionalidad. pudiendo completarse y acreditarse un certificado de profesionalidad con un máximo de 600 horas.

4.- Eraikuntza, elikagai-industria eta mantentze-lan industrialen sektoreetako prestakuntza teknikoa, parte hartzen duen gazte bakoitzeko gehienez 250 ordukoa. Prestakuntza hori 25 orduko moduluetan egingo da.

4º.- Formación técnica en Multioficios correspondientes a los sectores de construcción, industria alimentaria y mantenimiento industrial, con un máximo de 250 horas por persona joven participantes. Esta formación se realizará en módulos de 25 horas.

e) Berdintasunari buruzko prestakuntza. Nahitaezkoa izango da berdintasunari buruzko prestakuntza-modulu bat egitea, Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailaren jarraibideei jarraituz.

e) Formación en igualdad. Será obligatoria la realización de un módulo de formación en igualdad, siguiendo las directrices del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.

3. Esperientzia profesionala gutxienez 3 hilabetez eta gehienez 6 hilabetez egingo da, eta egunean gehienez 7 ordu iraungo du.

3. La experiencia profesional Se realizará durante un período mínimo de 3 meses y máximo de 6, con una duración diaria máxima de 7 horas

4. Laneratzea. Enplegu eta prestakuntza programa bakoitzeko, jardueran parte hartu duten pertsonen % 25 laneratu beharko da gutxienez.

4. Inserción. Por cada programa de empleo-formación se ha de insertar, por lo menos, al 25% de las personas que han participado en el mismo.

5. oinarria. *Laguntzen zenbatekoa eta muga.*

Base 5. *Cuantía y límite de las ayudas.*

Dekretu honetako jarduera guztiak lagunduko dira diruz, laneratzea izan ezik.

Serán subvencionables todas las actuaciones del presente decreto, a excepción de la inserción laboral.

Dirulaguntzak itzuli beharrik gabe emango dira, eta zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu dirulaguntzarako aurkeztutako laneratze-ibilbide guztien benetako kostua.

Las ayudas consistirán en subvenciones a fondo perdido, que no podrán superar en ningún caso el coste real del total de los itinerarios de inserción presentados a subvención.

1. Modulu hauek aplikatuko dira enplegu eta prestakuntza programa misto bakoitzari

1. Para realizar el cálculo del importe de subvención a conceder a cada programa mixto de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko:

a) 1. MODULUA. Laguntza, orientazio integrala eta lan-bitartekaritza:

1. modulua. Pertsonal-gastuak: Laguntza, orientazio integrala eta lan-bitartekaritzaren ordu-kopurua * pertsona-kopurua * 37 euro.

Hauek sartuko dira modulu honetan: zuzeneko pertsonal-gastuak, soldaten kostuak eta Gizarte Segurantzarenak, materialei edota aseguruei dagozkien gastuak, eta zeharkako gastuak (gehienez, langile-gastuen % 15).

b) 2. MODULUA. Prestakuntza:

Prestakuntza-ekintza bakoitzeko modulu hauek aplikatu beharko dira:

2.1 modulua Pertsonal-gastuak: Prestakuntza-orduen kopurua * 65,03 euro* edizioen kopurua.
Modulu honetan jasoko dira irakasleen soldaten kostuak eta Gizarte Segurantzarenak.

2.2. modulua: Funtzionamendu-gastuak:

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2022ko ekainaren 22ko Ebazpenaren II. eranskinean jasotako prestakuntza-espezialitateetarako (ebazpen horren bidez, langile langabeei zuzendutako 2022-2024 prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen deialdia argitaratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan), aipatutako ebazpen horretako A) Modalitate presentzialean emandako ekintzetarako

empleo-formación se aplicarán los módulos económicos siguientes:

a) MODULO 1. Acompañamiento, orientación integral e intermediación laboral:

Módulo 1. Gastos de personal: Número de horas de acompañamiento, orientación integral e intermediación laboral * número de personas*37 euros.

En este módulo se entienden incluidos los gastos directos de personal, costes salariales y de Seguridad Social, gastos de material, o seguros, y gastos indirectos hasta un máximo del 15% de los gastos de personal.

b) MODULO 2. Formación:

Por cada acción formativa se habrán de aplicar los siguientes módulos:

Módulo 2.1 Gastos de personal: Número de horas de formación*65,03 euros*número de ediciones.
En este módulo se entienden incluidos los costes salariales y de la Seguridad Social del personal docente.

Módulo 2.2: Gastos de funcionamiento:

Para las especialidades formativas contempladas en el anexo II de la Resolución de 22 de junio de 2022, de la Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se procede a la publicación de la convocatoria de subvenciones para financiar la oferta formativa 2022-2024 dirigida prioritariamente a las personas trabajadoras desempleadas, en el marco del Decreto 82/2016, de 31 de mayo, por el que se ordena la Formación Profesional para el Empleo en Euskadi, se aplicará el Módulo B "Gastos de funcionamiento" previsto en el apartado A) Módulos económicos para acciones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YWWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

modulu ekonomikoak atalean jasotako B modulua "Funtzionamendu-gastuak" aplikatuko da; b.2.1. eta b.2.2

impartidas en modalidad presencial; b.2.1. y b.2.2, previsto en la citada resolución.

Modulu hau honela aplikatuko da: "prestakuntza-orduen kopurua* parte-hartzaileen kopurua* koefizientea* edizioen kopurua

Este módulo se aplicará del siguiente modo: "número de horas de formación* número de personas participantes*coeficiente*número de ediciones

Baldin eta prestakuntza-espezialitatea ez badago Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren 2022ko ekainaren 22ko Ebazpenean jasota, honela aplikatuko da modulua:
2022ko ekainaren 22ko Ebazpenean antzeko prestakuntza-espezialitate bat badago, eta kostuen parekatzea justifikatuta geratzen bada, espezialitate horri dagokion modulua aplikatuko da; antzeko izaerako espezialitaterik ez badago, "prestakuntza-orduen* ikasle-kopurua* 1,42 euro" modulua aplikatuko da.

En el caso de que la especialidad formativa no esté recogida en la Resolución de, 22 de junio de 2022, de la Directora General de Lanbide.Servicio Vasco de Empleo, citada anteriormente, el módulo se aplicará del siguiente modo:
Si en la Resolución de 22 de junio de 2022 existiera una especialidad formativa de análoga naturaleza, y quedara justificada la equiparación de costes, se aplicará el módulo correspondiente a dicha especialidad; Si no existiera ninguna especialidad de análoga naturaleza se aplicará el módulo "número de horas de formación* número de alumnos*1,42 euros".

Langileei lotuta ez dauden eta zeharkakoak ez diren prestakuntza-gastu guztiak sartzen dira modulu honetan, hala nola ikasmateriala, publizitatea, alokairuak edo aseguruak.

Este módulo incluye todos los gastos de formación que no son de personal ni indirectos, tales como los de material didáctico, publicidad, alquileres o seguros.

2.3 modulua: Zeharkako gastuak: 2.1 moduluaren gehi 2.2 moduluaren baturaren % 10 izango da modulu hau.

Módulo 2.3: Gastos indirectos: ascenderá al 10% de la suma que resulte del Módulo 2.1 más el Módulo 2.2.

Modulu honetan kontzeptu hauek jasotzen dira: zuzendaritza-langileen gastuak, administrazio-langileen gastuak, berokuntza, argiak, garbiketa, instalazioen asegurua, bulegoko materiala, material informatikoa eta ura.

Este módulo incluye conceptos como: gastos de Dirección, gastos de personal administrativo, calefacción, alumbrado limpieza, seguro de instalaciones, material de oficina e informático, agua.

2. moduluaren zenbateko osoa 2.1 moduluaren, 2.2 moduluaren eta 2.3 moduluaren batura izango da.

El importe total del Módulo 2 será la cantidad que resulte de la suma del Módulo 2.1., del Módulo 2.2. y del Módulo 2.3.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

c) 3. MODULUA Kudeaketa eta zuzendaritza

c) MODULO 3. Gestión y dirección

3. Modulua. Erakunde koordinatzailearen kudeaketa- eta zuzendaritza-gastuak, 2.2 oinarriaren arabera: Kudeaketa eta zuzendaritza ordu-kopurua* 37 euro.
Modulu honetan sartzen dira langileen zuzeneko gastuak, soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak, bai eta zeharkako gastuak eta material-gastuak edo aseguruak ere.

Módulo 3. Gastos de gestión y dirección de la entidad coordinadora, conforme al apartado 2 de la base 2: Número de horas de gestión y dirección *37 euros.
En este módulo se entienden incluidos los gastos directos de personal, costes salariales y de Seguridad Social, así como gastos indirectos y gastos de material, o seguros.

Kudeaketa- eta zuzendaritza-orduen gehieneko kopurua ezingo da izan laguntza-, orientazio- eta prestakuntza-orduen guztizkoaren % 10 baino handiagoa.

El número máximo de horas de gestión y dirección no podrá superar el 10% del cómputo total de horas de acompañamiento, orientación, y formación.

2 Programan parte hartzeko laguntza ekonomikoa honela kalkulatuko da:

2 La ayuda económica a la participación en el programa se calculará de la siguiente forma:

18 eta 23 urte bitarteko gasteek, BGGa, DSBEa edo beste edozein prestazio ekonomiko jasotzeko aukerarik ez badute, hilean 600 eurokoa izango da, prestazio ekonomiko bat jasotzeko aukera izan arte, beren ibilbide pertsonalizatuan parte hartzen duten bitartean.

Los jóvenes entre 18 y 23 años sin posibilidad de acceso al IMV, RGI o cualquier otra prestación económica, será de 600 euros al mes, hasta el momento en que pueda acceder a una prestación económica, durante su participación en su itinerario personalizado.

Azken kasu horretan, parte-hartzaile bakoitzeko kontzeptu horrengatiko gehieneko zenbatekoa 7.200,00 eurokoa izango da, gehienez ere 12 hilabeteri dagokiona, eta hurrengo paragrafoan aurreikusitakoa sartzen dela ulertzen da.

En este último caso, el importe máximo por este concepto por cada persona participante ascenderá a 7.200,00 euros máximo, correspondiente a un máximo de 12 meses, se entiende incluido lo previsto en el párrafo siguiente.

1493/2011 Errege Dekretuaren edo 1543/2011 Errege Dekretuaren esparruan (praktika bekadunak) enpresan lanekoak ez diren praktikak egiten badira, erakunde onuradunak hilero ordainduko dio enpresari laguntza ekonomiko osoa, hau da, 600 euro hileko, lanekoak ez diren praktikek irauten duten bitartean (6 hilabete gehienez).

En los casos en que se realice práctica no laboral en empresa en el marco del Real Decreto 1493/2011 o del Real Decreto 1543/2011 (prácticas becadas), la entidad beneficiaria abonará a la empresa cada mes, la ayuda económica en su totalidad, es decir, 600 euros por mes, mientras duren las prácticas no laborales (6 meses máximo).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Ibilbide pertsonalizatuan parte hartzeko eta laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubideak behera egin du:

- Parte hartzen duten gazteek programan parte hartzeko eta eskura dituzten baliabideak baliatzeko konpromisorik hartzen ez dutenean.
- Programara ez joateagatik, baldin eta behar bezala justifikatu ezin bada.
- Jokabide-hutsegite larriengatik eta/edo errespetu-falta larriengatik ibilbide pertsonalizatuan parte hartzean.

El derecho a la participación en el itinerario personalizado y a la ayuda económica, decae:

- Cuando las personas jóvenes participantes no se comprometan a participar y aprovechar los recursos disponibles del programa.
- Por la no asistencia al programa, siempre y cuando no pueda justificarse debidamente.
- Por faltas graves de comportamiento y/o faltas de respeto graves durante su participación en su itinerario personalizado.

Erakunde onuradunak hutsegite larrien eta ez-bertaratzeen berri eman beharko dio Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Saileko Enplegu Zerbitzuari, eta behar bezala baloratuko ditu.

Las faltas graves y la no asistencia deberán ser comunicadas por la entidad beneficiaria al Servicio de Empleo del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, donde serán valoradas debidamente.

3. Programa egiteko dirulaguntzaren zenbateko osoa 1. eta 2. idatz-zatietako moduluak aplikatuta ateratzen den zenbatekoaren baturak zehaztuko du.

3. La cuantía total del de la subvención para la realización del programa vendrá determinada por la suma del importe que resulte de la aplicación de los módulos del apartado 1 y 2.

4. Programa ibilbide guztiak direla-eta gehienez ere 1.200.000,00 euroko dirulaguntza emango da erakunde bakoitzeko.

4. La subvención máxima alcanzable, por la totalidad de los itinerarios integrantes del programa y por entidad solicitante será de 1.200.000,00 euros.

6. oinarria: *Aurrekontu-zuzkidura*

Base 6: *Dotación presupuestaria*

1. Foru-dekretu honen arabera eman daitezkeen laguntzak eta onurak ondoren aipatuko diren aurrekontuko partiden eta horniduren kontura emango dira. Partida eta hornidura horiek aurrekontuei buruzko indarreko araudiaren arabera aldatu ahal izango dira.

1. Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse con arreglo al presente Decreto foral se efectuarán con cargo a las siguientes partidas y dotaciones presupuestarias, sin perjuicio de que las mismas puedan ser modificadas de conformidad con la normativa presupuestaria vigente.

Partida:.0904/G/241116/45100.2020/0011

Partida: 0904/G/241116/45100 2020/0011

Hainbat urtetarako gastua: 1.200.000,00 euro

Gasto plurianual:1.200.000,00 euros

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YWWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
2024. urtea: 950.000,00 euro
2025. urtea: 0,00 euros
2026. urtea: 250.000,00 euro

Importe y distribución por ejercicios:
Año 2024: 950.000,00 euros
Año 2025: 0,00 euros
Año 2026: 250.000,00 euros

2. Dirulaguntza hauetan, 1.200.000,00 euro eman ahal izango dira, gehienez ere, gutxi gorabehera. Kopuru hori, gehieneko zenbatekoei doakiela, 34/2010 Foru Dekretuaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera alda daiteke.

2. El importe total de las ayudas que se concedan tendrá como límite máximo estimativo la cantidad de 1.200.000,00 euros, y se podrá modificar conforme a lo previsto en el artículo 41 del Decreto Foral 34/2010 en relación a los límites de las cuantías máximas.

Halaber, aurrekontuetako kredituen arteko banaketa gutxi gorabeherakoa da; beraz, aurkeztutako eskabide kopuruaren arabera eta kontuan izanik izaera askotako erakunde onuradunak egon daitezkeela, foru-dekretu honetan ezarritako aurrekontuko izendapen horiek foru-dekretu honetan adierazitako partida ezberdinen artean banatu ahal izango dira, foru-agindu bidez, betiere ezarritako muga orokorra gainditu gabe.

Así mismo, la distribución entre los créditos presupuestarios tiene carácter estimativo, por lo que en función de las solicitudes presentadas y dada la distinta naturaleza de las posibles personas y entidades beneficiarias, las citadas consignaciones establecidas en este decreto foral podrán redistribuirse mediante orden foral entre las distintas líneas y partidas señaladas en este decreto foral, sin superar el límite global fijado.

Eskabide guztiak ebatzi ondoren aurrekontuaren gehieneko mugara heltzen ez bada, sobera geratutako zenbatekoa gastatzeko baimena ezeztatu egingo da, eta horretarako ez da beharrezkoa izango dekretu hau aldatzea.

Si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante sin que sea obligatorio modificar el presente decreto.

3. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako foru dekretu baten bidez, kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu beharko da.

3. Los créditos presupuestarios podrán ser modificados antes de que finalice el plazo de presentación de solicitudes. La modificación se hará mediante Decreto foral aprobado en Consejo de Gobierno, tendrá en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas previstas y, en su caso, se deberá ampliar el plazo de presentación de solicitudes. Todo ello conforme al artículo 41.2 del Decreto foral 34/2010.

4. Halaber, 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluaren arabera, aurrekontu-zuzkiduren zenbateko osoari 1.000.000,00

4. Igualmente, conforme al artículo 43 del Decreto foral 34/2010, la cuantía total de las diferentes dotaciones presupuestarias podrá ser

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YWWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

euro gehitu ahal izango zaizkio gehienez, kasu hauetan:

a) Kreditu-handitzeak, kreditu-sorrerak edo kreditu-gehitzeak onartzearen ondorioz kreditu erabilgarriak handitzen direnean.

b) Aurrez ebatzitako deialdietatik datorren zenbateko gehigarria dagoenean, deialdi horietarako aurreikusitakoa baino txikiagoa.

Zenbateko gehigarria eraginkorra izan dadin, kredituaren erabilgarritasun-adierazpena egin beharko da, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

Zabaltze hori horretarako eskumena duen organoak baimenduko du.

5. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren gehienezko aurrekontu-muga lortzen ez bada, gastu-baimenaren baliogabetzea izapidetuko da soberan dagoen zenbatekoan, foru dekretu hau aldatu beharrik gabe.

## II. TITULUA
## Araubide juridikoa

7. oinarria. *Araubide juridikoa*

1. Foru-dekretu honetan aipatzen diren dirulaguntzek honako arau hauei jarraituko diete: foru-dekretu honi beroni, laguntzak emateko foru-aginduei, 5/2005 Foru Arauari eta hura garatzen duen erregelamenduari (34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsiari) eta Administrazio Zuzenbideko gainontzeko arauei. Halakorik ezean, Zuzenbide Pribatuko arauak aplikatuko dira.

ampliada en un importe adicional máximo de 1.000.000,00 euros, en los siguientes casos:

a) Cuando exista un aumento de los créditos disponibles derivado de la aprobación de ampliaciones de crédito, generaciones o incorporaciones de crédito.

b) Cuando exista cuantía adicional proveniente de convocatorias anteriores resueltas por importe inferior al previsto para las mismas.

La efectividad de la cuantía adicional quedará condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito, que deberá efectuarse en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

Dicha ampliación la autorizará el órgano competente para ello.

5. Si una vez resueltas todas las solicitudes de la convocatoria no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante, sin necesidad de modificar este Decreto Foral.

## TÍTULO II
## Régimen Jurídico

Base 7. *Régimen Jurídico*

1. Las subvenciones a que se refiere el presente Decreto foral se regirán por lo dispuesto en el mismo, y en las órdenes forales de otorgamiento, así como por lo establecido en la Norma Foral 5/2005 y su reglamento de desarrollo aprobado por Decreto foral 34/2010, las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Administrazio-prozedurari dagokionez foru-dekretu honetan jasotzen ez denerako, aplikatu beharrezkoa izango dira 39/2015 Legea eta 40/2015 Legea, bai eta bere izaeragatik aplikatu daitekeen beste edozein xedapen ere.

En lo no previsto en el presente Decreto foral en cuanto a procedimiento administrativo, será de aplicación la Ley 39/2015, la Ley 40/2015, y cualquier otra disposición que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

2. Dekretuan aurreikusten diren laguntzak ez dira estatu-laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 1. apartatuan ezarritako moduan; izan ere, enpresari ez dakarkiote mozkinik, eta ez diete ekoizpen edo enpresa batzuei mesederik egiten beste batzuen kaltetan. Beraz, salbuetsita daude tratatu horren 108.3 artikuluan ezarritako jakinarazpen-prozeduratik.

2. Las ayudas previstas en el decreto no constituyen ayudas de estado en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que no suponen un beneficio para una empresa ni favorecen a determinadas producciones o empresas en detrimento de otras. Por tanto, quedan excluidas del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho tratado.

8. oinarria.- *Organo eskudunak.*

Base 8.- *Órganos competentes.*

Enplegu Zerbitzuak antolatuko eta izapidetuko ditu espedienteak, Enplegu Zuzendaritza Nagusiaren mende.

La ordenación e instrucción de los expedientes se llevará a cabo por el Servicio de Empleo bajo la dependencia de la Dirección General de Empleo.

9. oinarria: *Arau-hausteak eta zehapenak*

Base 9: *Infracciones y sanciones.*

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatutakoa izango da.

1. El régimen de infracciones y sanciones será el dispuesto en el título IV de la Norma Foral 5/2005 y en el título IV del Decreto Foral 34/2010.

2. Lege hauetan aurreikusitakoa aplikatuko da: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean, 39/2015 Legea); 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; eta 1/2023 Legea, martxoaren 16koa, Euskal Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenarena, aurrekoen aurka ez doan guztian.

2. Será de aplicación lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante Ley 39/2015), en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y en la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas, en lo que no se oponga a las anteriores.

10. oinarria. *Baldintzak ez betetzea.*

Base 10. *Incumplimiento.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

1. Jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da, eta dagokion berandutze-interesa eskatuko da dirulaguntza ordaintzen denetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte, eta, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da:

a) Oinarri hauetan, emakidaren ebazpenean edo aplikatzekoa den araudian ezarritako betebehar edo baldintzaren bat betetzen ez denean

b) 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren bat dagoenean.

2. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira ondorio guztietarako.

3. Itzuli beharreko zenbatekoei aplika dakiekeen berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

4. Dirua itzultzeko prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

5. Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

a) Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik burutzeak dirulaguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du, edo, hala badagokio, dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.

1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro y, en su caso, la pérdida del derecho al cobro de la subvención:

a) Cuando se incumpla alguna de las obligaciones o condiciones establecidas en las presentes bases, en la resolución de la concesión o en la normativa de aplicación.

b) Cuando se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, o en el Decreto Foral 34/2010.

2. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de Derecho Público a todos los efectos.

3. El interés de demora aplicable a los importes a reintegrar será el previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

4. El procedimiento de reintegro se tramitará con sujeción a lo dispuesto en el título II de la Norma Foral 5/2005, y en el título III del Decreto Foral 34/2010.

5. Los criterios para la graduación de los incumplimientos de las condiciones impuestas con motivo del otorgamiento de la subvención serán los siguientes:

a) El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de solo una parte de la actividad, dará lugar al pago parcial de la subvención o, en su caso al reintegro también parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto de la total.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

b) Egindako gastu guztiak edo batzuk dirulaguntza kobratu ondoren ordaintzen ez badira, dirulaguntza itzuli egingo da, diruz lagundu daitezkeen eta egotzitako gastu guztiei dagokienez ordaindu ez diren gastuen proportzioan.

b) La falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, producirá el reintegro de la subvención en proporción a los gastos no pagados respecto al total de gastos subvencionables imputados.

c) Dirulaguntza bat eman denean gastu-aurrekontu bat erreferentzia legez hartuta, baina egotzi eta justifikatutako gastua aurrekontuan ezarritakoa baino txikiagoa bada.

c) Cuando se concede la subvención tomando como referencia un presupuesto de gasto, y sin embargo el gasto imputable justificado es inferior al presupuestado.

d) Prestakuntza-ekintzak egiteko hirugarren batzuk azpikontratatzen badira dekretu honen 26. oinarria aplikatu gabe, lan-zentroetako prestakuntza praktikoaren kasuan izan ezik.

d) Cuando se subcontrate la ejecución de acciones formativas con terceros obviando la aplicación de la base 26 de este decreto, a excepción de la formación práctica en centros de trabajo.

e) Jarduketa gauzatzeko epeak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, berandutze-interesekin batera. Hala ere, jarduketak epe orokorrean edo luzapen-epean amaitu ez badira, baina jardueraren zati bat epe barruan egin bada, epe barruan egin ez den aldearen dirulaguntzaren zenbatekora mugatuko da itzultzeko betebeharra, betiere zatikako gauzatze horrek jardueraren xedea lortzea eragozten ez badu.

e) El incumplimiento de los plazos de ejecución de la actuación conllevará la obligación de reintegro de las cantidades percibidas junto con los intereses de demora. No obstante, cuando las actuaciones no hayan sido terminadas en el plazo general o en el de prórroga, pero alguna parte de ellas hayan sido realizadas en plazo, la obligación de reintegro se limitará a la cuantía de la subvención de la parte no realizada en plazo, siempre que dicha ejecución parcial no impida la consecución del objeto de la actuación.

f) Ekintzak edo gastuak gauzatzean edo justifikatzean ez-betetze partzialen bat gertatuz gero itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera zehaztuko da, kontuan hartuta dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak zenbateraino bete diren eta zein mailatan ez diren bete.

f) La cantidad a reintegrar en caso de incumplimiento parcial en la ejecución o en la justificación de las acciones o gastos vendrá determinada, con arreglo al criterio de proporcionalidad, atendiendo a la entidad y grado de incumplimiento de las condiciones impuestas con motivo de la concesión de la subvención.

g) Ez-betetzearen arrazoia prestakuntza-ekintza bakoitzeko gutxieneko partaide opurua (8) gutxitzea bada, honela kuantifikatuko da ez-betetzea: prestakuntza

g) Si el incumplimiento es debido a la disminución del número mínimo de 8 personas participantes por cada acción formativa se cuantificará el incumplimiento del siguiente modo: si finaliza el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

amaitzean 8 pertsona baino gutxiago badaude, justifikatu gabe (4. oinarrian adierazten dira arrazoiak) prestakuntza bertan behera utzi duen pertsonako % 5ean murriztuko da 2. modulua dela-eta diruz lagundutako zenbateko osoa.

curso un número inferior a 8 personas, por cada persona participante inferior a 8 que haya abandonado el curso por causa no justificada, de las previstas en la Base 4, se disminuirá un 5% de la cantidad total subvencionada por la aplicación del módulo 2.

h) Erakunde esleipendunak dirulaguntzaren xede diren jarduerak dirulaguntzaren esleipenean oinarritzat hartutakoak baino pertsona gutxiagoren gainean egiten dituenean, ez-betetzea graduatu egingo da, eta % 1 murriztuko da dekretu honen 5. oinarriko 1. modulua eta 2. moduluaren 1. paragrafoa (a eta b) aplikatuz esleitutako zenbatekoa, arreta jaso ez duen pertsona bakoitzeko.

h) Cuando la entidad adjudicataria realice las actividades objeto de esta subvención sobre un número de personas inferior a las tomadas como base en la adjudicación de la subvención, el incumplimiento se graduará disminuyendo un 1% del importe adjudicado en aplicación del Módulo 1 y Módulo 2 apartado 1 (a y b) de la Base 5 de este decreto por cada persona que no hubiera sido atendida.

6. Arrazoi hauek direla-eta galduko dute ibilbideetan parte hartzen duten pertsonek enplegu eta prestakuntza programan parte hartzeagatik dirulaguntza: bertan behera uztea; programatutako prestakuntza-orduen % 25etik gora bertaratu ez izana, edo, desgaitasun intelektuala dutenen kasuan, % 50etik gora; ez lanekoak diren praktikoak justifikatu gabeko arrazoiengatik ez egitea.

6. Las personas participantes en los itinerarios perderán el derecho a la percepción de la ayuda por participación en el programa empleo-formación en los siguientes casos: por abandono; por falta de asistencia en más del 25%, o en el caso de personas con discapacidad intelectual por falta de asistencia a más del 50%, de las horas programadas de las acciones formativas; por imposibilidad de realizar las prácticas no laborales por causa no justificada.

Prestakuntza ez da bertan behera utzitzat joko programatutako gutxieneko ordu-kopurua ez betetzeagatik baldin eta arrazoi justifikatu bat badago edo behar bezala egiaztatutako inguruabar pertsonalak gertatzen badira.

No se considerará abandono la falta de asistencia al mínimo de las horas programadas del curso por causa justificada, o circunstancias personales debidamente acreditadas.

7. Ez-betetzetzat hartuko da 4. oinarrian ezarritako gutxieneko laneratzearen % 25 guztiz justifikatzen ez bada. Ez-betetzeak, 5. oinarriko 1.1 moduluari dagokion zenbatekoari dagokionez, betetzen ez den laneratzearen % 25etik beherako proportziotik ateratzen den zenbatekoa gutxitzea ekarriko du, eta, hala badagokio, itzultzea.

7. Se considerará incumplimiento si no se justificara en su totalidad el 25 % de inserción mínima exigida, establecida en la Base 4. El incumplimiento dará lugar a la minoración, y en su caso al reintegro, de la cuantía que resulte de la proporción entre la inserción no cumplida inferior al 25% en relación con el importe relativo al Módulo 1.1 de la Base 5

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

8. Kopuru baten gaineko ehunekoa kalkulatuta lehen hamartarra 5 edo 5 baino handiagoa denean, ehunekoaren hamartar hori hurrengo zenbaki osora biribilduko da.

8. En el resultado de la operación del porcentaje sobre un número, se pasará al entero siguiente que resulte de la aplicación del porcentaje cuando el primer decimal sea igual o superior a 5

9. 5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan aurreikusitako beste laguntza batzuekiko konkurrentziagatiko gainfinantzaketaren kasuan, gaindikina itzuli egingo da, eta horri dagokion berandutze-interesa aplikatuko zaio. Ildo beretik jokatuko da baimendutako laguntzak gainditzeagatik minimis baldintzak betetzen ez badira.

9. En el supuesto de sobrefinanciación por concurrencia con otras ayudas contemplado en el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, procederá el reintegro por la cantidad excedida, a la que se aplicará el correspondiente interés de demora. En idéntico sentido se procederá en caso de incumplimiento de los requisitos de minimis por haber superado las ayudas permitidas.

10. Hedapen-betebeharrak, gardentasun-betebeharrak, hizkuntza koofizialen erabilera, genero-berdintasuna eta beste gizarte-politika batzuk betetzen ez badira, emandako dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da eta/edo dirulaguntzaren zati bat itzuli beharko da, gehienez ere % 10. Kasu zehatz bakoitzerako emandako dirulaguntzaren ehunekoa zehazterakoan, adierazitako gehieneko mugaren barruan, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, honako irizpide hauek kontuan hartuta: bete ez diren betebeharrak, horien entitatea, onuradunak bete nahi duen ala ez, ez-betetzearen arrazoiak eta ez-betetze horiek nola eragiten dioten helburuak lortzeko moduari, jarduera egin behar den moduari, proiektua gauzatu behar den moduari edo dirulaguntza emateko oinarri den jokabidea hartu behar den moduari.

10. El incumplimiento de las obligaciones de difusión, transparencia, uso de lenguas cooficiales, igualdad de género y otras políticas sociales conllevará la pérdida del derecho al cobro y/o el reintegro parcial de hasta un máximo del 10% de la subvención concedida. A la hora de determinar para cada caso concreto el porcentaje de la subvención concedida dentro del límite máximo indicado, se aplicará el principio de proporcionalidad atendiendo a los siguientes criterios: las obligaciones incumplidas, la entidad de las mismas, la actuación de la persona beneficiaria tendente o no a su cumplimiento, las causas del incumplimiento y cómo afectan dichos incumplimientos al modo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

11. Oinarri hauetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzen ez badira, emandako dirulaguntza osoa edo haren zati bat galduko da, oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta, berariazko aurreikuspenik ezean, proportzionaltasun-irizpidearen arabera finkatuko da itzuli beharreko zenbatekoa,

11. El incumplimiento del resto de las obligaciones establecidas en las presentes bases conllevará la pérdida total o parcial de la subvención concedida en función de lo que dispongan las bases y, en ausencia de previsión expresa, la cantidad a reintegrar se fijará con arreglo al criterio de proporcionalidad

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

ez-betetzeak lortu nahi den helbururako duen garrantzia eta interes publikorako duen kaltea kontuan hartuta.

atendiendo a la entidad y grado de relevancia del incumplimiento para la finalidad perseguida y el perjuicio para el interés público

4. Las notificaciones se entenderán practicadas en el momento que se produzca el acceso a su contenido. Cuando transcurran diez días naturales desde la puesta a disposición de la notificación sin que se acceda a su contenido, se entenderá rechazada, dándose por efectuado el trámite de notificación.

## IV. TITULUA
## Gauzatzea, justifikatzea eta kontrolatzea

## TÍTULO IV
## Ejecución, justificación y control

24. oinarria. *Gauzatzeko epeak*

Base 24.- *Plazos de ejecución*

Programa horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan garatu eta kokatu behar dira 2024ko irailaren 1etik 2026ko irailaren 30era arte, eta diagnostiko pertsonalizatuarekin emango zaio hasiera.

Dichos programas han de desarrollarse y localizarse en el Territorio Histórico de Bizkaia desde el 1 de septiembre de 2024 hasta el 30 de septiembre de 2026, se dará inicio con el diagnóstico personalizado.

Programaren jarduerak amaitzeko gehienezko epea 2026ko irailaren 30a izango da.

El plazo máximo para la finalización de las actuaciones del programa será el 30 de septiembre de 2026.

Kontratazioa prestakuntza amaitzen denetik 2026ko irailaren 30era bitartean formalizatuko da.

La contratación se formalizará en el período comprendido desde la finalización de la formación hasta el 30 de septiembre de 2026.

25. oinarria. *Justifikatzeko epea*

Base 25.- *Plazo de justificación*

Justifikatzeko gehienezko epea 2026ko urriaren 30ean amaituko da. Ez dute laneratzea justifikatuko 2026ko irailaren 30a baino geroago formalizatutako lan-kontratuek.

El plazo máximo de justificación finalizará el 30 de octubre de 2026. No justificarán la inserción los contratos de trabajo formalizados en fecha posterior al día 30 de septiembre de 2026.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

26. oinarria. *Azpikontratazio-baldintzak*

1 Erakunde onuradunak, dekretu honetan aurreikusitako baldintzetan, prestakuntza teknikoa egitea azpikontratatu ahal izango du, gehienez ere "prestakuntza teknikoko orduei buruzko 2.1 modulua" aplikatzearen ondorioz esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 15. Onuradunak diruz lagundutako prestakuntza emateko irakasleak kontratatzea ez da azpikontratatziotzat hartuko.

2. Azpikontrataziorik egonez gero, 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Diruz lagundutako gastuaren zenbatekoak 15.000 euroko kopurua gainditzen duenean, aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresek emandako zerbitzuak badira, erakunde onuradunak hiru aurrekontu aurkeztu beharko ditu, 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde onuradunak berak eskatu behar izan dituenak, hain zuzen ere.

27. oinarria. *Dirulaguntzen justifikazioa.*

Dirulaguntza justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez, behean adierazten diren epeetan:

1. 2024ko abenduan, egun horretara arte egindako eta diruz lagundutako jardueren gauzatze-txostena aurkeztu beharko du, honako eduki hauekin:

a) Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Saileko Enplegu Zerbitzuak zehaztutako formatuan eta identifikazio-datuekin, diagnostiko pertsonalizatuaren ondoren

Base 26.- *Condiciones de subcontratación*

1 La entidad beneficiaria únicamente podrá subcontratar en los términos previstos en este decreto la realización de la formación técnica, hasta un 15 % del importe de subvención adjudicada que resulte de la aplicación del “módulo 2.1 de horas de formación técnica”. La contratación de personal docente para la impartición de la formación subvencionada por parte del beneficiario no se considerará subcontratación.

2. En el caso de que exista subcontratación de la formación habrá de cumplirse lo previsto en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005.

Por ello, cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 15.000 euros en el supuesto de prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, la entidad beneficiaria habrá de presentar los tres presupuestos que, en aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005 deba haber solicitado.

Base 27. *Justificación de las subvenciones.*

La subvención otorgada se justificará mediante la presentación a través de la Oficina Virtual del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la siguiente documentación y en los plazos que se relacionan a continuación:

1. En diciembre de 2024 deberá presentar un informe de ejecución de las actuaciones realizadas y subvencionadas hasta la citada fecha con el siguiente contenido:

a) En el formato y con los datos identificativos que se determine por el Servicio de Empleo del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad se proporcionarán, en el aplicativo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

ibilbideari ekiten dioten pertsonen identifikazio-datuak emango dira aplikazio informatikoan.

b) Parte hartzen duten gazteei egindako enplegagarritasun-diagnostikoa.

c) Jardueren kronograma eta plangintza

2. 2025eko ekainean, egun horretara arte egindako eta diruz lagundutako jardueren gauzatze-txostena aurkeztu beharko du, honako eduki honekin:

a) Aplikazio informatikoan parte-hartzaileen datuak eguneratuko dira.

b) Orain arte egindako jardueren memoria

c) Hala badagokio, programan sartutako gazteei egindako enplegagarritasun-diagnostikoak, aurreko justifikazioan jasota ez badaude.

3. 2025eko abenduan, orain arte egindako eta diruz lagundutako jardueren gauzatze-txostena aurkeztu beharko du, honako eduki honekin:

a) Aplikazio informatikoan parte-hartzaileen datuak eguneratuko dira.
b) Orain arte egindako jardueren memoria.

c) Hala badagokio, programan sartutako gazteei egindako enplegagarritasun-diagnostikoak, aurreko justifikazioan jasota ez badaude.

4. 2026ko ekainean, orain arte egindako eta diruz lagundutako jardueren gauzatze-txostena aurkeztu beharko du, honako eduki honekin:

informático, los datos identificativos de las personas que, tras su diagnóstico personalizado, inician su itinerario.

b) Diagnóstico de empleabilidad realizados a las personas jóvenes participantes

c) Cronograma y planificación de las actuaciones.

2. En el mes de junio de 2025, deberá presentar un informe de ejecución de las actuaciones realizadas y subvencionadas hasta la citada fecha con el siguiente contenido:

a) En el aplicativo informático se actualizarán los datos de las personas participantes.

b) Memoria de las actuaciones realizadas hasta la fecha.

c) En su caso, los diagnósticos de empleabilidad realizados a las personas jóvenes incorporadas al programa que no consten en la anterior justificación.

3. En el mes de diciembre de 2025, deberá presentar un informe de ejecución de las actuaciones realizadas y subvencionadas hasta la fecha, con el siguiente contenido:

a) En el aplicativo informático se actualizarán los datos de las personas participantes.
b) Memoria de las actuaciones realizadas hasta la fecha.
c) En su caso, los diagnósticos de empleabilidad realizados a las personas jóvenes incorporadas al programa que no consten en la anterior justificación.

4. En el mes de junio de 2026, deberá presentar un informe de ejecución de las actuaciones realizadas y subvencionadas hasta la fecha, con el siguiente contenido:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YWWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

a) Aplikazio informatikoan parte-hartzaileen datuak eguneratuko dira.
b) Orain arte egindako jardueren memoria.

c) Hala badagokio, programan sartutako gazteei egindako enplegagarritasun-diagnostikoak, aurreko justifikazioan jasota ez badaude.

a) En el aplicativo informático se actualizarán los datos de las personas participantes.
b) Memoria de las actuaciones realizadas hasta la fecha.
c) En su caso, los diagnósticos de empleabilidad realizados a las personas jóvenes incorporadas al programa que no consten en la anterior justificación.

5. 2026ko urriaren 31 baino lehen, azken justifikazioa aurkeztu beharko da, eduki honekin:

5. Con anterioridad al 31 de octubre de 2026 se habrá de presentar la justificación final, con el siguiente contenido:

a) Aplikazio informatikoan parte-hartzaile bakoitzaren identifikazio-datuak eguneratuko dira.
b) Egindako jardueren amaierako memoria.
c) Laneratzea justifikatzeko memoria, ondoren egiaztatzeko behar diren datuekin.

d) Memoria ekonomikoa, egotzitako sarreren eta gastuen egoera-orriari buruzkoa.

a) En el aplicativo informático se actualizarán los datos identificativos de cada persona participante.
b) Memoria final de las actuaciones realizadas
c) La memoria justificativa de la inserción laboral conseguida con los datos necesarios para su posterior comprobación.
d) Memoria económica que consistirá en el detalle de estado de ingresos y gastos imputados.

Gastu egozgarriak 5. oinarriko 1. paragrafoko a) idatz-zatian adierazitako moduluak egiaztatzetik eratorritakoak izango dira (langile-gastuak: orientazioko eta bitartekotzako laguntzari eskainitako ordu-kopurua pertsona bakoitzeko, eta artatutako pertsona-kopuru osoa), b) 2. modulua (emandako prestakuntza-orduen kopurua) eta c) 3. modulua (kudeaketa- eta zuzendaritza-gastuak).

Los gastos imputables serán los que resulten de la acreditación de los módulos señalados en la base 5 apartado 1. a) Módulo 1 (gastos de personal: número de horas dedicadas al acompañamiento orientación e intermediación por persona, y total de número de personas atendidas), b) Módulo 2 (número de horas de formación impartidas) y c) Módulo 3 (gastos de gestión y dirección).

Parte-hartzaileei eta enpresei ordaindutako laguntzen azalpen-txostena, laguntzaren zenbatekoa eta emateko arrazoia justifikatuz. Egindako ordainketaren egiaztagiria erantsiko da.

Informe explicativo de las ayudas abonadas a las personas participantes y empresas, justificando su cuantía y el motivo de su otorgamiento. Se adjuntará documento justificativo del abono realizado

Honako jarduera hauetako bakoitzeko ziurtagiri bana emango da: laguntza, orientazioa, prestakuntza eta bitartekaritza. Ziurtagiri horretan, ordutegi-kostua,

Se expedirá un certificado por cada una de las siguientes actuaciones: acompañamiento, orientación, formación e intermediación, dicho certificado especificará el coste horario,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

pertsonen zerrenda eta jarduera bakoitzeko dedikazio-orduen kopurua zehaztuko dira.

e) Aurreko c) idatz-zatian adierazitako diru-sarreren egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko diruz lagundutako programa mistoak finantzatu dituzten dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreren edo baliabideen xehetasun bat, eskatutako finantzaketa propioa barne, hala badagokio, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

f) Emandako dirulaguntzaren emaitzen ebaluazioa: horretarako, erakunde onuradunek txosten bat egin beharko dute, eta bertan adieraziko da programan parte hartzen duten pertsonen egoera, egindako diagnostikoari dagokionez.

g) 22. oinarrian aurreikusitako betebeharrak betetzeko erabilitako hedapen-neurriak egiaztatzea.

h) Lanekoak ez diren praktikak egin badira, enpresen eta prestakuntza-erakundearen arteko hitzarmenak edo akordioak aurkeztuko dira.

6. Erakunde onuradunek dokumentazio hau gorde beharko dute:

a) Parte-hartzaile bakoitza programaren hasieran erroldatuta egotea.
b) Parte-hartzaileen langabezia-egoera edo enplegu-hobekuntza egiaztatzen duen dokumentazioa, edo, hala badagokio, Lanbidek eskainitako prestakuntza- eta orientazio-zerbitzuak eskatu izana egiaztatzen duen agiria, beren egoera erregularizatu gabe duten migratzaileen kasuan.
c) Bertaratze-orriak eta ikastaroaren kalifikazio-ziurtagiriak
d) Orientazio-prozesuari buruzko txostena, parte-hartzaile bakoitzaren bitartekaritza-

listado de personas y número de horas de dedicación por cada actuación.

e) Un detalle de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia exigida, en su caso, que hayan financiado los programas subvencionados, por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos señalado en el apartado c) anterior, con indicación del importe y su procedencia.

f) La evaluación de los resultados de la subvención concedida: a tal fin las entidades beneficiarias deberán realizar un informe en el cual se indicará la situación de las personas participantes en el programa en referencia al diagnóstico realizado.

g) La acreditación de las medidas de difusión empleadas a fin de cumplir las obligaciones previstas en la base 22.

h) En los supuestos en que se haya realizado prácticas no laborales se aportarán los convenios o acuerdos entre las empresas y la entidad de formación.

6. Las entidades beneficiarias deberán de conservar la siguiente documentación:

a) El empadronamiento de cada persona participante al inicio del programa.
b) Documentación acreditativa de la situación de desempleo o de mejora de empleo, de las personas participantes, o en su caso, documento acreditativo de haber solicitado los servicios de formación y orientación ofertados por Lanbide, en el supuesto de personas migrantes que no tienen regularizada su situación.
c) Hojas de asistencia y certificados de calificación del curso.
d) Informe sobre el proceso de orientación, acompañamiento intermediación de cada una

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YWWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

laguntza eta tutorearen jardueren deskribapena.

7. Justifikazioari buruzko dokumentazioa ezarritako epeetan aurkezten ez bada, 10. oinarrian aurreikusitako ez-betetze prozedurari ekingo zaio.

28. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea.*

1. Epe hauetan ordainduko da 5. oinarriko 1. apartatuko a) b) eta c) letretako moduluak aplikatuta emandako laguntza:

a) Laguntza ematen den unean, emandako dirulaguntzaren % 85 ordainduko da gehienez.

b) Gainerako ehunekoa 2026. urtean ordainduko da, ekintzak garatzeko emandako laguntza justifikatu ondoren. Justifikazio hori 2026ko ekainaren 30a baino lehen egin beharko da, 10. artikuluan ezarritako egiaztagiriak aurkeztuta.

2. 5. oinarriko 1.d) idatz-zatiko modulua aplikatzeari dagokion zenbatekoa honela ordainduko da: laguntza ematen denean, zenbatekoaren % 85 ordainduko da gehienez, eta gainerako ehunekoa 2026. urtean.

Dekretuaren 5. oinarrian ezarritako laguntza ekonomikoaren zenbatekoa horretarako eskubidea duten partaideei ordaindu beharko die erakunde onuradunak, hilero, edo, lanbide-esperientziaren fasea helduta, enpresari ordainduko dio oinarri horretan ezarritako zenbatekoa.

Horretarako, erakunde onuradunak xede horretarako kontu korronte esklusibo bat irekiko du eragiketa-bolumen handiena

de las personas participantes y descripción de las actividades del tutor.

7. En el supuesto de que la documentación relativa a la justificación no se presentará en los plazos establecidos se iniciará el procedimiento de incumplimiento previsto en la base 10.

Base 28. *Pago de la subvención.*

1. La ayuda otorgada en aplicación de los módulos de la base 5 apartados 1. a) b) y c) se abonará en los siguientes plazos:

a) En el momento de concesión de la ayuda, se abonará hasta un máximo del 85% de la subvención otorgada.

b) El porcentaje restante, se abonará en el año 2026, tras la justificación de la ayuda otorgada para el desarrollo de las acciones que deberá realizarse como plazo máximo para el 30 de junio de 2026, mediante la presentación de la documentación justificativa establecida en el artículo 10.

2. El importe correspondiente a la aplicación del módulo de la base 5 apartado 1.d) se hará efectivo del siguiente modo: en el momento de concesión de la ayuda se abonará hasta un máximo del 85% del importe, y el porcentaje restante en el año 2026.

Mensualmente la entidad beneficiaria deberá proceder al abono, a las personas participantes que tengan derecho, del importe de la ayuda económica prevista en la base 5 o, en su caso, llegada la fase de experiencia profesional, a la empresa, del importe previsto en la citada base.

A tal fin la entidad beneficiaria abrirá en la entidad financiera donde desarrolle su mayor volumen de operaciones una cuenta corriente

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

garatzen duen finantza-erakundean, izenaren, NANaren eta bertatik egiten den kontabilitate-mugimendu bakoitzeko parte hartzen den ibilbidearen arabera identifikatuta.

exclusiva para tal fin, identificando por nombre, DNI y el itinerario en que se participe por cada movimiento contable que desde ella se realice.

Justifikazioari buruzko agiriak 25. oinarrian zehaztutako epearen barruan aurkezten ez badira, 10. oinarrian eta hurrengoetan xedatutako prozedura irekiko da ez-betetzea dela eta.

En el supuesto de que la documentación relativa a la justificación no se presentará en los plazos previstos en la base 25 se iniciará el procedimiento de incumplimiento previsto en la base 10 y siguientes.

3. Betebeharra aitortu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga-betebeharrak nahiz zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak ere bete dituztela egiaztatuko da.

3. Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y, en su caso, frente a la Seguridad Social.

Egindako egiaztapenaren bidez ikusten bada erakunde onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, 10. oinarrian eta hurrengoetan ezarritakoa ez-betetzeetarako ezarri den prozedura hasiko da, eta ohartaraziko zaio ezen eman zitzaion laguntzaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea galduko duela, eta emaniko kopurua doitu egin beharko zaiola.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que las entidades beneficiarias no se hallan al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social se iniciará el procedimiento de incumplimiento establecido en la base 10 y siguientes, con el apercibimiento de que perderá el derecho al cobro del importe de la ayuda otorgada de que se trate y con el resultado de reajuste de la cantidad otorgada.

29. oinarria. *Laguntzen bateragarritasuna.*

Base 29. *Compatibilidad de ayudas.*

1. Dekretuan ezarritako laguntzak jasotzea bateragarria izango da xede bererako estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok nahiz erakunde publikok edo pribatuk ematen dituzten laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabideekin. Hala ere, ezin izango da ekintza bererako dirulaguntza gehiago jaso Bizkaiko Foru Aldundiaren beste programa batetik, azken laguntza horiek bateraezinak izango baitira.

1. Será compatible la percepción de las ayudas previstas en el decreto con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales a excepción de la percepción de otra subvención por la misma acción en virtud de otro programa de la Diputación Foral de Bizkaia, en este último supuesto será incompatible.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

2. Dirulaguntza guztien zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ezta beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera ere.

2. En ningún caso el importe total de las subvenciones podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada

Erakunde onuradunek nahitaez jakinarazi behar diote dirulaguntza eman dien organoari beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela hark diruz lagundu dituen jarduerak finantzatzeko.

Será obligación de las entidades beneficiarias comunicar al órgano concedente, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas.

Halako laguntza, sarrera edo baliabideak jaso behar direla jakin bezain laster egin behar da jakinarazpen hori, eta betiere jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

Jakinarazteko eginbehar hori ez betetzeak dagokion zehapena ekarriko du, 5/2005 Foru Arauaren arabera.

El incumplimiento de este deber de comunicación dará lugar a la correspondiente sanción de conformidad con la Norma Foral 5/2005.

30. oinarria. *Erakunde onuradunaren betebeharrak.*

Base 30. *Obligaciones de las entidades beneficiarias.*

Erakunde onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

Las entidades beneficiarias están obligadas a:

1. Dirulaguntza ematearen funtsa den jarduera egitea edo hartarako jokabidea hartzea.

1. Realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

2. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari, hala denean, jarduera gauzatu dela edo hori lortzeko asmoz jardun dela frogatzea, baita dirulaguntza ematea edo hartaz gozatzea ekarri duten betebeharrak eta baldintzak bete direla ere.

2. Justificar ante el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, en su caso, la realización de la actividad o la adopción del comportamiento, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

3. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila, hala badagokio, egiten dituen egiaztapen-jarduketen mendean jartzea, bai eta ematen

3. Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, en su caso, y a las de control



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YWWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

diren dirulaguntzen eta laguntzen arloan Ogasun eta Finantza Sailari dagokion finantzen kontrolerako jarduketen eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren fiskalizazio-prozeduren mendean jartzea ere.

financiero que corresponden al Departamento de Hacienda y Finanzas, en relación con las subvenciones y ayudas concedidas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

4. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila Sailari jakinaraztea helburu bererako dirulaguntzarik edo bestelako laguntzarik jaso bada nazioko edo nazioarteko beste edozein administraziotatik edo erakunde publikotatik.

4. Comunicar al Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedente de cualesquiera Administraciones o Entes Públicos nacionales o internacionales.

Baita eskabidean adierazitako datuei buruzko edozein aldaketa edo inguruabarren berri ematea ere, baldin eta aldaketa edo inguruabar horrek dirulaguntza jasotzean edo dirulaguntzaren xedea den jardueran edo helburuan funtsezko eragina izan badezake.

Así como cualquier circunstancia o eventualidad relativa a los datos declarados en la solicitud que pueda afectar sustancialmente a la percepción de la subvención, o en su caso, a la ejecución de la actividad o finalidad para la que se concedió.

5. Jarduerak finantzatzeko, dirulaguntzaz gain norberaren funtsak edo beste dirulaguntza zein baliabide batzuk erabili badira, justifikazio-agirian beste funts horien zenbatekoa, jatorria eta funts horien diruz lagundutako jarduerei egindako aplikazioa ere egiaztatu beharko dira.

5. Cuando las actividades hayan sido financiadas además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, se habrá de reflejar en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

6. Diruz lagundutako jardueren azterketa eta ebaluazioa edozein unetan egin daitezke, jarduera hasten denetik, eta jarduera amaitu eta gero ere egin daiteke. Erakunde onuradunak lankidetzan jardun beharko du Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarekin, eskatzen zaizkion datuak eta agiriak aurkeztu beharko ditu.

6. El análisis y evaluación de las acciones subvencionadas se podrá realizar en cualquier momento desde el inicio de la acción y con posterioridad a su finalización. La entidad beneficiaria deberá colaborar con el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, y aportará los datos y documentación que éste le solicite.

7. Datu pertsonalak eskatzerakoan, datuen babesari buruzko arautegiaren beharrizanen arabera jokatzea.

7. Recabar datos personales en consonancia con las exigencias de la normativa de protección de datos.

8. Kontabilitateko liburuak, erregistroak eta gainerako agiri guztiak edukitzea (kasu bakoitzean entitate onuradunari aplikatu

8. Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

behar zaizkion merkataritzako eta arloko legerietan ezarritakoaren arabera auditatuak), eta dirulaguntza hauen oinarrietan eskatzen diren kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak edukitzea, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.

exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la entidad beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

9. Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak gordetzea (baita dokumentu elektronikoak ere), ekonomia eta fiskalizazio kontroleko organoek

9. Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

Merkataritza Kodearen 30. oinarrian xedatutakoaren arabera, liburuetan azken idazpena egin eta 6 urteko epean gorde beharko dira agiriok.

Esta documentación deberá conservarse durante 6 años a partir del último asiento realizado en los libros de conformidad con el art. 30 del Código de Comercio.

10. Erakunde onuradunek emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna eta dirulaguntza honen xede diren baldintzak eskuratzeko berdintasuna bermatuko du.
Era berean, material, irudi eta dokumentuetan ezin izango da emakumea diskriminatzen duen irudirik erabili, eta material, irudi eta dokumentu horiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-balioak, rol aniztasuna eta erantzunkidetasuna sustatu behar dituzte.

10. Las entidades beneficiaria garantizarán la igualdad de mujeres y hombres en el trato, y en el acceso de los recursos objeto de la presente subvención.
Así mismo, todos los materiales, imágenes y documentación evitarán por completo cualquier imagen discriminatoria de la mujer, y deberán fomentar valores de igualdad, pluralidad de roles y corresponsabilidad entre mujeres y hombres.

11. Laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen zerga-betebeharrak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatu beharko dute.

11. Acreditar, con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se hallan al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social.

Ezin izango dira erakunde onuradun izan lehenago jasotako beste dirulaguntzaren bat itzultzeko ordainketak egunean ez dituztenak.

Tampoco podrán obtener la condición de entidad beneficiaria quienes no se hallen al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.

Egoera hauek Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak egiaztatuko ditu, beti ere abenduaren 5eko 3/2018 Lege

Estas situaciones serán verificadas por el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, de acuerdo con la Ley Orgánica

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Organikoa eta urriaren 1eko 39/2015 Legea kontuan hartuta.

12. Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea entitate adjudikaziodunaren sozietate-izenari dagokion edozein aldaketa, bai eta haren forma juridikoari dagokiona edo bazkideen aldaketari dagokiona eta abar ere.

13. Erakunde onuradunek, 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluarekin bat, honako inguruabar hauen justifikazio-txostena aurkeztu beharko du, salbu eta interes publikoko arrazoiek justifikatzen badute betebehar horietatik salbuetsita egotea:

a) Pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu beharko dute lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta azkentzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean eta bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa uztartzean, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, eta ekintza sindikalean, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan, lan-baldintza duinak, duinak eta ez-diskriminatzaileak ziurtatuz.

b) Pertsona fisiko edo juridikoek zaindu beharko dute emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izatea, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudia sustatzen dutela, bai idatzizko informazioan, ahozkoan, ikonografikoan, publizitate-ekintzetan, barne- eta kanpo-komunikazioan, komunikazio formal eta informalean, bai proiektua edo jarduera gauzatzearekin lotutako materialetan.

3/2018, de 5 de diciembre, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

12. Comunicar al Servicio de Empleo cualquier modificación que afecte a la razón social, a la forma jurídica, o a la variación de las personas socias, etc., de la entidad adjudicataria.

13. Las entidades beneficiarias, de conformidad con el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, salvo que razones de interés público justifiquen la exención de estas obligaciones, deberán presentar informe justificativo de las siguientes circunstancias:

a) Las personas físicas o jurídicas deberán promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

b) Las personas físicas o jurídicas deberán velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

c) Pantillan 50 langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana edukitzeko betebeharra betetzen dutela egiaztatu beharko dute, bai eta plan hori benetan aplikatzen dela ere.

c) Las personas físicas o jurídicas con una plantilla superior a 50 personas deberán acreditar el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres previsto en la Ley 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva.

d) Plantillan hamabost langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek lan-eremuan indarkeria matxista prebenitzeko, jarduteko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta desagerrarazteko neurriak hartuko direla bermatu beharko dute, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzkoak.

d) Las personas físicas o jurídicas con más de quince personas trabajadoras en plantilla deberán garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.

14. Erakunde onuradunek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan.

14. Las entidades beneficiarias deberán utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada.

15. Erakunde onuradunek beren jardueraren berri herritarrei emateko erabiltzen dituzten liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

15. En todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado por las entidades beneficiarias para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales.

31. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradun diren erakundeetako arduradunen datu pertsonalen tratamendua.*

Base 31. *Tratamiento de datos personales de las personas responsables de las entidades beneficiarias de la subvención.*

Interesdunak emandako datuak foru dekretu honetatik eratorritako prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa) ezarritakoaren arabera.

Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven de este decreto foral, de acuerdo con lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679, de 27 abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YWWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Tratamenduaren arduraduna Enplegu, Gizarteratze Kohesioa eta Berdintasun Saileko Enplegu Zuzendaritza Nagusia da (Mazarredo zumarkalea 63, 48009 Bilbo), eta Datuak Babesteko ordezkaria Aholkularitza Juridikoaren, Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Atala da (Kale Nagusia, 25, 48009 Bilbo).

El responsable del tratamiento es la Dirección General de Empleo, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad (Alameda Mazarredo 63, 48009 Bilbao) y la persona delegada de Protección de Datos es la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos - Gran Vía, 25, 48009 Bilbao.

Tratamendu hori egiteko, ahal publikoak erabiliko dira, legezko betebeharrak beteko dira, eta eskaera sinatuta emandako berariazko baimena hartuko da oinarri.

Dicho tratamiento se realizará en el ejercicio de potestades públicas, el cumplimiento de obligaciones legales y en base al consentimiento expreso otorgado con la firma de la solicitud.

Eskabideak administrazio publikoen esku dauden datu pertsonalak adierazteko edozein bide erabiliz egiten badira, eskaeraren organo hartzaileak, bere eskumenak erabiliz, datuen zehaztasuna egiaztatzeko beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu.

Cuando se formulen las solicitudes por cualquier medio en las que la persona interesada declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos.

Bildutako datuak Bizkaiko Lurralde Historikoan enplegagarritasuna sustatzeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak kudeatzeko erabiliko dira

Los datos recabados serán utilizados para la gestión de subvenciones de fomento de actividades encaminadas a promover la empleabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Ez da datu pertsonalik lagako, legez behartuta edo interesdunaren baimenarekin izan ezik. Era berean, ez da aurreikusten hirugarren herrialdeetara edo nazioarteko erakundeetara transferitzea.

No se realizarán cesiones de datos personales, salvo por obligación legal o consentimiento de la persona interesada. Tampoco se prevén transferencias a terceros países u organizaciones internacionales.

Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko. Era berean, emandako baimena edozein unetan baliogabetu ahal izango du. Era berean, eskubidea du Datuak Babesteko Kontrol Agintaritzan erreklamazio bat aurkezteko, eta informazio hori zabaldu egin

La persona interesada tiene derecho a acceder a sus datos, solicitar su rectificación, supresión o la limitación u oposición al tratamiento. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren web orri instituzionaleko datuen babesari buruzko atalean (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos).

información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

FICHA DE DERIVACIÓN AL PROGRAMA GAZTE ON

GAZTE ON PROGRAMARA BIDERATZEKO FITXA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

I. ERANSKINA / ANEXO I

| Gizarte Zerbitzu desbideratzailearen datuak/Datos del Servicio Social derivante: | | |
|---|---|---|
| Gizarte zerbitzu desbideratzailea/Servicio Social derivante | | |
| Gizarte Laguntzailearen izena / Nombre de la/el Trabajador/a Social | Telefonoa / Teléfono | Posta elektronikoa / Correo electrónico |

| Eskatzailearen datuak / Datos de la persona solicitante | | | |
|---|---|---|---|
| 1. abizena / Apellido 1 | | 2. abizena / Apellido 2 | |
| Izena / Nombre | NAN - AIZ / DNI - NIE | Nazionalitatea / Nacionalidad | |
| Jaioteguna / Fecha de nacimiento | Sexua / Sexo | Egoera zibila /Estado civil | |
| Helbidea / Domicilio | Udalerria / Localidad | Posta-kodea / Código Postal | |

| Komunikazio eta jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio para las comunicaciones y notificaciones | | | |
|---|---|---|---|
| Kalea / Calle | Zk, eskailera, solairua,-atea / Nº, escalera, piso,- puerta | Udalerria / Localidad | |
| Posta-kodea / Código Postal | Probintzia / Provincia | Posta elektronikoa / Correo electrónico | Telefonoa / Teléfono |
| ☐ Eskatzailearen egoitza / Domicilio Solicitante ☐ Beste bat / Otro: ______________________ | | | |

## ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTUAK

1.- **Gizarte-txostena,** II. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

## AURKEZTEKO ERA

Posta elektronikoz bidali ondorengo helbidera:

valoracion.exclusion@bizkaia.eus

## DOCUMENTOS A ADJUNTAR

1.- **Informe social,** según modelo adjunto como anexo II.

## MODO DE PRESENTACIÓN

Remitir por correo electrónico a la siguiente dirección:

valoracion.exclusion@bizkaia.eus

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q616
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

II. ERANSKINA: GIZARTE TXOSTENA

| PERTSONAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK |
|---|
| - Datu Pertsonalak: izen-abizenak, NAN/AIZ. |
| **EGOERA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA** |
| - Egoera administratiboa: errolda, administrazio-erregularizazioa (bizileku eta lan-baimena indarrean ote dituen), babes neurriak… |
| **LOTURA AFEKTIBOAK, GIZARTE BABESA JASOTZEA & BIZIKIDETZA HARREMANAK** |
| - Lotura esanguratsuak.<br>- Lehen mailako sareak: senitartekoak zein bestelako laguntzak.<br>- Harremanak bizikidetzaren testuinguruan. |
| **GAITASUN PERTSONALAK** |
| - Eguneroko bizitzako ohiturak antolatzea (elikaduraren antolaketa, higiene pertsonala, etxeko lanak, auto-zaintzako oinarrizko zereginak, osasunerako zainketen antolaketa, administrazio ekonomikoa).<br>- Laguntza eskatzeko eta aholkua jarraitzeko gaitasuna.<br>- Erabakiak autonomiaz hartzeko trebetasuna.<br>- Erantzukizuna gauzatzea.<br>- Norberaren egoera errealismoz aztertzeko gaitasuna.<br>- Lagunak egiteko eta mantentzeko trebetasuna.<br>- Baliabide komunitarioak erabiltzeko trebetasuna. |
| **PRESTAKUNTZA, INFORMAZIOA ETA GAIKUNTZA** |
| - Prestakuntza akademikoa (titulazioarekin amaitutako ikasketak).<br>- Lanerako prestakuntza (titulazioarekin amaitutako ikasketak).<br>- Egiten ari den prestakuntza.<br>- Etorkinen kasuan, hizkuntza-gaitasunak.<br>- Lan-esperientzia (sektorea, lan egindako urteak, azken enplegua, egonkortasuna enpleguetan, azken enplegua).<br>- Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzuan) enplegu-eskatzaile edo prestakuntza-eskatzaile gisa izena ematea. |
| **OSASUNA ETA AUTONOMIA FISIKOA/PSIKIKOA** |
| - Osasun Fisikoa.<br>- Osasun Mentala.<br>- Droga-mendekotasunak edo adikzioak.<br>- Desgaitasun-maila eta/edo mendekotasun-maila, hala badagokio. |
| **GIZARTE-ONARPENA ETA EGUNEROKO BIZIKIDETZA KOMUNITARIOA** |
| - Arau hausteekin zerikusia duten jarrerak: salaketak, epaiak, edota ingurunera egokitzeko maila baxua adierazten duten bestelako jarrerak. |
| **HARREMAN SOZIALAK IZATEKO AUKERA ETA GIZARTEAN PARTE HARTZEA** |
| - Aisialdia eta denbora librearen antolaketa.<br>- Aisialdiko jarduera formal zein informaletan parte hartzea.<br>- Sare sozialen erabilera. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q6I6
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

## ANEXO II: INFORME SOCIAL

| IDENTIFICACIÓN DE LA PERSONA |
|---|
| - Dato Personales identificativos: nombre y apellidos, DNI/NIE. |
| **SITUACIÓN JURÍDICO-ADMINISTRATIVA** |
| - Situación administrativa: padrón, regularización administrativa, medidas de protección... |
| **VÍNCULOS AFECTIVOS, RECEPCIÓN DE APOYO SOCIAL & RELACIONES DE CONVIVENCIA** |
| - Vínculos significativos y estilo de los vínculos.<br>- Redes primarias familiares y no familiares de apoyo.<br>- Relaciones en el contexto de la convivencia. |
| **COMPETENCIAS PERSONALES** |
| - Organización de hábitos de vida cotidiana (organización de la alimentación, higiene personal, tareas domésticas, tareas básicas de auto-cuidado, organización de los cuidados para la salud, administración económica).<br>- Capacidad para pedir ayuda y seguir consejo.<br>- Habilidades para tomar decisiones autónomamente.<br>- Ejercicio de la responsabilidad.<br>- Capacidad de analizar con realismo su situación.<br>- Habilidades para hacer y mantener amistades.<br>- Habilidad para usar recursos comunitarios. |
| **FORMACIÓN, INFORMACIÓN Y CAPACITACIÓN** |
| - Formación académica (estudios finalizados con titulación obtenida).<br>- Formación ocupacional (estudios finalizados con titulación obtenida).<br>- Formación en curso.<br>- En caso de personas inmigrantes, competencias lingüísticas.<br>- Experiencia laboral (sector, años trabajados, último empleo, estabilidad en los empleos desempeñados, último empleo).<br>- Inscripción como demandante de empleo o formación en Lanbide (Servicio Vasco de Empleo). |
| **SALUD Y AUTONOMÍA FÍSICA/PSIQUICA** |
| - Salud Física.<br>- Salud Mental.<br>- Drogodependencias o adicciones.<br>- Grado de discapacidad y/o dependencia, en su caso. |
| **ACEPTACIÓN SOCIAL y CONVIVENCIA COTIDIANA COMUNITARIA** |
| - Comportamientos relacionados con la ruptura de normas: denuncias, sentencias, u otros comportamientos de baja adaptación al entorno. |
| **DISPONIBILIDAD DE RELACIONES SOCIALES Y EJERCICIO DE LA PARTICIPACIÓN SOCIAL** |
| - Organización de ocio y tiempo libre.<br>- Participación en actividades de ocio formales e informales.<br>- Uso de redes sociales. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XW8K-ZZ3I-YVWM-Q616
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: